

GIL 21 Eginoko kareharriak



Eginoko kareharrien eta Lezea leizearen itxura orokorra.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 52' 39,65 '' N
Long.: 2° 15' 57.46 '' W

- **UTM koordenatuak:**

X: 559.732,91 m
Y: 4.747.555,68 m




Nola iritsi

N-1 errepidean Altsasu eta Gasteiz artean dauden Eginoko eta Ilarduia herrietatik. Ilarduia-tik abiatuz gero, Lezea leizetik pasatu behar da, eta, handik, aparkalekutik ateratzen den bidea hartu, ekialderantz, paretaren azpitik.

GILaren deskribapen laburra

Eginoko kareharriek horma handi ikusgarri bat osatzen dute Arabako Lautadan, Eginoko herriaren parean. Ilarduia-ko sekzioan, berriz, 600 m-ko lodierako kare-harri gris zurixka ageri da, itxura masiboa hartzen duena, organismo eraikitzaile asko baititu, hala nola errudistak eta korralak. Fossil-edukia kontuan harturik, Goi Albiar - Erdi Cenomaniar adinean kokatu da unitate hau.



Eginoko monolitoetako baten xehetasuna.

Arrezife-adabaki horiek plataformaren sedimentazio-sistemako subsidentzia txikiko sektoreetan garatu ziren, zartadura sakonei edo jatorri diapirikoko gainei lotuak.

N-S norabideko faila-multzo txiki batek eragiten die, zeinek haran txiki batzuk osatzen baitituzte paisaia.

Morfologiari dagokionez, deigarriak dira hormatzarraren aurrealdearekiko paraleloa den geruzapen bertikalaren aldeko monolitoak. Batzuek 50 m-ko edo gehiagoko altuera dute, eta Eginoko eskalada-eskola ezaguna osatzen dute.

Behatzeko punturik onena

In situ edo Egin herritik.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 52, GIL 68.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 20, GIL 22, GIL 11.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa		●		
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa			●	
	Paleontologikoa				
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala ●	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Nafarroako azalaramenduan, harrobi handi bat dago.				